

10. Kostuen egitura

Kostuak lan egiten den negozio-ereduaren araberakoak izango dira. Horregatik, balioa sortzeko eta entregatzeko kostuak, bezeroekiko harremanen mantentze-lanen kostuak edo kostu bat duten diru-sarreren sorrera zein diren jakin behar da.

Gastuak: erabilera arruntean, gastua beste pertsona edo talde bati zerbitzu baten truke, edo produktu baten truke ematen zaion diruaren balantzea da.

Inbertsioak: Ekonomian, inbertsioa edo inbestimendua gerora errentagarri izango delakoan aktibo bat eskuratzen denean gertatzen da, horretarako aurrezkia edo kanpoko finantzaketa erabiliz. Inbertsioak erabaki eta horretarako dirua jartzen dutenak inbertitzaileak edo inbestitzaileak dira.

Kostu finkoak: berdin mantentzen direnak dira, adibidez, argiaren faktura, interneta...

Kostu aldakorrak: kopuruaren arabera aldatzen direnak dira, adibidez, lehengaiak, eskulanak...

Zuzeneko kostuak: produktua egiteko zuzenean aplikatzen direnak dira, adibidez, produktua egiteko eskulana.

Zeharkako kostuak: ez dute produktua egiten baina beharrezkoak dira, adibidez, lokalaren alokairua, kontulariaren soldata...

- Gure produktuaren kostuak aztertzerakoan, kostu finkoei deritzenez, internetaren erabilera izango zen, webgune baten bidez produktua eskaintzen dugulako.

Kostu aldakorrei deritzenez, lehengaiak aztertzean, kostuan izan behar dugu zapata osatzen dituzten materialen prezioa, hala nola, goma, ehuna, sistema elektrikoa (LED argiak, estimuluak bidaltzen dituen aparatua).

Zuzeneko kostuak izango genituzke ere, zuzenean produktuan aplikatzen baitira, guk geuk eginez.